

Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko produkzioa % 4,8 hazi zen 2021eko laugarren hiruhilekoan


2021. urte osoan, sektorearen produkzioa % 7,2 hazi da, Etxegintzan % 7,8 eta Obra Zibilean % 3,6 hazita urtean

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko Eraikuntzaren sektorearen jardura aurreko urteko azken hiruhilekoan baino % 4,8 handiagoa izan da, uneko prezioetan. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, ordea, urtaro-ondorioak zuzendu ondoren, jardura % 0,2 murriztu da.

2021. urte osoan, eraikuntzaren jardura neurtzen duen indizeak % 7,2ko igoera izan du 2020. urte osoarekiko. 2021. urtean, jardueraren batez besteko igoera % 7,8koa izan da Etxegintzan eta % 3,6koa Obra Zibilean.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Hiruhileko honetako urte arteko hazkundera bi arrazoiengatik gertatu da: batetik, Etxegintza azpisektorearen portaeragatik (urte arteko terminoetan % 4,9 igo da) eta, bestetik, Obra Zibila azpisektorearenagatik (urteko azken hiruhilekoan % 3,9 igo da). Hori dena, uneko prezioetan.

2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, jarduerak behera egin du Obra Zibilaren portaeraren ondorioz; izan ere, % 5,5 jaitsi da urtaro-eraginik gabeko terminoetan. Etxegintzan, aldiz, jarduera % 0,7 igo da hiruhileko artean.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Aldakuntza tasak (%). Uneko prezioak (p). 2021/IV

	Egutegiaren eragina zuzenduta		Desestazionalizatua	
	IV 2021/IV 2020	At/At-1	IV 2021/IV 2020	At/At-1
Produkzioaren indizea	4,8	7,2	-0,2	1,4
Eraikinak	4,9	7,8	0,7	0,3
Obra zibila	3,9	3,6	-5,5	9,0
Landunkopuruaren indizea	2,4	0,4	0,9	-0,1

Oinarria 2015

(p)Behinbehineko datuak

At/At-1: t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Data 2022ko Martxoaren 1a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Langile enplegatuen indizea, 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta % 0,9ko igoera izanik, % 2,4 handiagoa izan da 2020ko laugarren hiruhilekoan ikusitakoa baino. Azkenik, 2021. urte osoan, langile enplegatuak % 0,4 gehiago izan dira 2020an izanikoak baino.

Informazio-oharrak

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraikiz.

2021eko laugarren hiruhilekoko EKlren estaldura % **89,6koa** izan da. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62